

Manuel Ugarte Lopetegi

*Zumaia,
Gipuzkoa (1945)*

Aurkibidea

Biografia



Oikiako Epeolagoikoa baserrian jaio zen, eta bertan bizi da. Aita gazterik hil zen, eta Manuelek ere gazterik hartu zuen baserriko lanen ardura. Hainbat urtez 'Xey' lantegian lan egin zuen, jubilatuta arte. Oikiako elizako sakristau izandakoa. Ehiztaria da.

Zintak

ZUM-009

- **Proiektua:** Zumaiako hizkera
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Data:** 2007-06-01
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Transkribatzailea(k):** Zabaleta Zuloaga, Miren

ZUM-050

- **Proiektua:** Zumaiako toponimia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Azkue Ibarbia, Xabier
- **Data:** 2005-01-01
- **Iraupena:** 40 min
- **Euskarria:** CD
- **Emalea:** Azkue Ibarbia, Xabier

Pasarteak

1. Monagilo eta sakristau lanak mutikotan

- **Erref:** ZUM-009/002
- **Iraupena:** 0:03:56. **Hasi:** 00:00:44. **Bukatu:** 00:04:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Oikian ibili zen eskolan, baina denbora gutxian. Monagilo eta sakristau lanak egiten zituen mutikotan. Sakristautzako lanak. Sakristaua eta serora egoten ziren. Apaiz edadetu bat Irundik etortzen zen maiatzean eta urrian. Hark ere ematen zituen mezak eta hari laguntzera ere joaten zen.

2. 'Xey' lantegia; 70 urte inguruko hazkunde industrial

- **Erref:** ZUM-009/004
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:07:20. **Bukatu:** 00:10:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Boom industrial
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debarrenen lantegiak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

<p>'Xey' lantegia 1970-72 inguruan etorri zen Oikiara. Lehenago Donostialdeko Ergobin zegoen. Oikiara etortzean jende asko hasi zen bertan lanean eta kanpotik ere etortzen zen jendea. 1975 inguruan hirurehun langiletik gora zituen. Aurretik, 'Pollos Oikina' etorria zen, eta Elgetatik

o holaxe etorrita...

- Sesenta y...
- Bai. Setentan o hola esango nittun zea ta're. [...] dittuk hamengo...
- Ordun kanbiyua, ordun hasi zan, ez?
- Kanbiyua, ordun, ordun, ordun hasi...
- Hirurogeita hamarrian gutxi gorabehera.
- Bai. Hor, hor hasi huan zea o, nahiko kanbiyua o ta. Basarriyan-ta ta.

3. Fabrikako lana eta baserrikoa batera

- **Erref:** ZUM-009/005
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:10:15. **Bukatu:** 00:11:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:

<p>Lantegian egunean 10-12 ordu lan egiten zuten eta etxera etorrita han ere lanak egin behar. Larunbat goizetan ere lan egiten zuten hasieran eta hori kendu zenean lasaitua hartu zuten.</p>

Transkripzioa

- Ta geo bakik, esan detena. Lehen, hi, tallarrian [...] hitun ta, gu udaan ta ordu asko in behar izaten giñun ordun, tallarrian ordun. Hamar ordu t'erdi itten [genittun] [laneko], hamar ordu, hamar ordu t'erdi, hamabi're makiña bat aldiz iñak gaittuk!

- Bai, ez?

- Bai. Eta berriz itxea etorri ta berriz itxian'e jardun in behar! Hua izaten huan!

- Klaro!

- Han zuluhan pasatzen huan euna ta berriz'e hamen etorri ta...

- Ganaua ta...

- Ganaua berriz ta, zeatzeko astiik ez, bizitzeko're astiik ez! Sapatuan'e lana izaten huan hasieran, hasi giñanen. Geo ya kendu huan. Sapatuan jai itten hasi huan geo.

- Sapatu goizian baiña, ez?

- Bai.

- O goiz ta arratsalde?

- Ez, goizian, goizian. Ta geo ya sapatua zea in huan, kendu huan ta. Geo pixkat lasaixio, hi, asteburua pixkat trankillaua, hi. Basarriyan'e beti izaten huan [lana], han ez huan jairik izaten.

- Ez!

- Ez. Lana izaten huan, han ez bazan, hamen.

- Fabrikan lana iten duna ta gero kalia, ba, ondo, baiña...

- Bai, bai. Bai, kalia [...] ondo, bai, bai, baiña...

4. "Pollos Oikina" fabrikaren sorrera

- **Erref:** ZUM-009/006
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:11:15. **Bukatu:** 00:12:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:

Inguruetan "Pollos Oikina" izan zen jarritako lehen enpresa nagusia. Hasieran fabrika txikia zen eta etengabe haziz joan zen. Sortzaileak oikiarrak ziren.

Transkripzioa

- Eta esan dezu orduan hamen, e, lehenbizikua orduan "Pollos Oikiña" izango zan?

- "Pollos Oiquina" hamen Oikiyan. Ta geo beste tallar txiki bat dao, baiña hor lau bost bat laun o ibiltzen [...]. Angel Arrona hor huan beste bat.

- Eta "Oikiña" hau aspaldikua da? Noiz jarri zuen?

- "Oiquina" hau? Hau... hasi zala urte mordua izango dek. Horrek... Hau hamen in zala ta Xey... Hau hogeta hamabost urte inda eongo dek, hemen. Ta lehengo, lehen txikiya [ziyan danak] han, bere, zea, "Errota" esaten ziyan... "Errota" huan lehen. Habek, "Pollos Oiquina"ko habek, fundadore habek zian lehen "Errota". Bai.

- Bertakuak dia?

- Bai, [Oikiya ...].

- [...].

- Bat hilda zio, fundatoria bat hilda zio eta beste anaia Zarautzan bizi dek. Ta geo hoiek hasi hittuan, ta ordun jendia, hamen bertako jendiak, e, zea, ordu batzuk eta zea, sartu ta. Ez huan... fijo-fijo ez huan izaten, baiña... Bai, ta oillaskua o ekartzen zuenian [...] pixkanaka hasi hittuan hoiek, eta pixkana-pixkana-pixkana geo ugaltzen, geo ugaltzen, ta... Puf! Geo jun huan baiña geo... suerte txarra izan huan. Ta oain beste zea batek zakak.

5. Baratzea bizibide; autopistak lurak jan zizkien

- **Erref:** ZUM-009/007
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:12:45. **Bukatu:** 00:15:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

<p>Kotxerik ez zegoen eta astoarekin joaten ziren estaziora gauzak eramatera. Baserrian ganadua baino gehiago baratzea izaten zuten, gehienbat tomatea eta lekak. Ama Donostiara joaten zen saltzera. Autopistak sailik onenak hondatu zizkien. Terrenoak gutxitzean hasi zen fabrikan lanean.</p>

Transkripzioa

- Baiña hoiek hittun zeak, gure bizimouko zeak. Ta ordun hik […] automobillik-eta’re ez huan, ta basarriyan eoten giñanian-ta ta, astuakin estaziyoa jun behar izaten huan trenea, zea eamatea, jenerua eamatea.
- Bertako, Oikiyako…
- Bai. Oikiyan bahuan hor estaziyua, hor huan apeaderua. Harrea jun behar izaten giñun astuakiñ. Ama zana, ama zana Donostira juten

huan.
- Donostira, e?
- Bai, gu mutil-koskorak giñanian ta, udaan tomatia asko iten giñian, tomatia ta baina. Berdura. Gehio ganaua baiño, berdura gehio itten giñian.
- Bai, ez? Oikiyan…
- Hemen batzuk ganaua askoekin eoten hittun. Baiño hamen, gure itxian-ta ta, hamen zea gehio. Hemen…
- Baratza.
- …baratzako gauza gehio itten giñian.
- Tomatia, piperra ta…
- Bai.
- Baina.
- Baina, ta illarra ta. Hoiek danak. Geo autopistak hau… terrenuak puskau zixkiñ danak. Gui’re […] haundiya harrapau [zitxiun]. Han soro txiki bat osua. Bestiai’re pusketa haundiya ta… Haben bi dabezenak habek’e, habek’e beheko barrenak lurrian gozuenak eta onenak…
- Eta ze zian, danak baratzak? Dana oaiñ’e autopista pasatzen da, ta baratza.
- Oain autopistako hoiek baratzak […] hoiek. Ta baratza, ta lehen-lehen gariya ta’re bai.
- Gariya bai.
- Gariya ta artua ta, hoiek, babarrunak ta [in behar izaten hittun ta]. Lurrikan earrenak gure etxiak zittunak zeak jan zixkin, autopistak.
- Autopistak asko aldatu zun Oikiya?
- Bai. [Ointxe] jata ebakita geldittu huan ordun.
- Bitan.
- Ya ordun, orduan ya, hoi pasa zanian hasi niñun ni’re zeara…
- Tallarrian.
- …tallarrea lanea. Eske terrenuak zeatu hittun… Lehenotiyo ideakin gatxaben, baiño jutea, zea, tallarrea hasteko ideakin natxion. Bagitxikiun gaiñea nola zatorren, autopista nola zatorren…
- Jakinda…
- …jakinda gatxaben ordurako zea behar zala, terrenuak izorrauko zittula. Ta ya ordun zea in giñun, bukau giñun ta. Uaiñ hamentxe, uain jubilauta. Gure bizimoua pasata.

6. Donostiara jeneroa saltzera

- **Erref:** ZUM-009/008
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:15:10. **Bukatu:** 00:17:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

Bera mutikoa zela ama Donostiara joaten zen trenez jeneroa saltzera. Gero furgoneta erosi zuen berak eta arreba ere joaten zen gerora amak utzi zuenean. Arreba Zumaiara ere tarteka joaten zen eta Zarautzera sarriago. Postua ere izan zuen Zarautzen eta bezeroak egin zituen.

7. Ipiolagoikoa baserria; galdutako baserriak

- **Erref:** ZUM-009/009
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:17:00. **Bukatu:** 00:19:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Ipiolagoikoa baserrikoa da. Bi baserri daude izen horrekin: izan ere, garai batean, bi anaiak etxe berean bizi nahi eta zatitu egin zuten etxea bi bizitzakoa eginez. Ipiolaazpi baserria ere badago. Inguruetan ez da baserri asko galdu, baina Eskazabal baserria autopista egiteko bota zen. Honekin batera "Almazen zaharra" esaten zitzaiona ere bota zen. Eraikin hori garai batean fabrikako almazena omen zen, baina kanpotarrak etorri eta etxebizitza egin zuten bertan.

8. Pilotan aritzen zen, arreba zaindu bitartean

- **Erref:** ZUM-009/010
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:19:30. **Bukatu:** 00:22:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Oikia lasaia zen. Eskolan, herriko ume guztiak elkarrekin ibiltzen ziren. Eskolatik irtendakoan, euren zaletasuna pilota izaten zen. Arreba gazteagoa berak zaindu behar izaten zuen, eta hura petrilean utzita pilotan aritzen zen. Kotxerik ez zen ibiltzen eta umeak kalean lasai ibiltzen ziren.

9. Herrian ikusten ziren kotxe banakak

- **Erref:** ZUM-009/011
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:22:00. **Bukatu:** 00:24:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk
- Ekonomia eta industria » Boom industrialak

Laburpena:

Kotxerik ez zen etortzen Oikiara, plazako "Txortena" tabernara limonadarekin etortzen zen kamioia, Aizarnara ikatz bila joaten zena eta "letxeroa" rena bakarrik. "Letxeroa" deitzen ziotena herriko garraioa izaten zen. Baserritarrek astoan esneekin plazara jaitsi eta harekin joaten ziren Zumaiara. Eskazabal baserrikoak era bazuen kotxea eta feriara harekin joaten zen jendea. Gero "Pollos Oikina" lantegikoek ere ekarri zuten kotxea. Industriaren hazkundearekin batera ugaltu ziren kolpetik kotxeak.

10. Harri koskorrekin ezik beste edozerekin pilotan

- **Erref:** ZUM-009/012
- **Iraupena:** 0:03:50. **Hasi:** 00:24:50. **Bukatu:** 00:28:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

Frontoi ederra zuen lehen Oikiak, baina bota egin zuten estalitako frontoi berria egiteko. Mutikotan pilotan asko jokatzeko zuten. Goizean goiz izaten zen meza, tabernan txakolin batzuk edan eta pilotan aritzen ziren. Harria bezalako pilotarekin aritzen ziren eta ez zuten gaur egunean bezalako babesik erabiltzen. Dirurik ez zegoen baloirik erosteko eta norbaitek pilota berri samarren bat izanez gero, pozez zorutzen egoten ziren. Nagusiagoek frontoia okupatu eta beraiek "zimitayoan" (elizpean) jokatu behar izaten zuten.

Transkripzioa

- Eta bestela, plaza ta, Oikiyako, Oikiko plaza ta... asko aldatu da?
- Oikiko plaza, frontoia, frontoia politta huan Oikiyan. Uain botata zio. Uain geo berriya in ziyen tapautakua.
- Eta nun zeon lehen?
- Lehen Oikiyan... Oikiya zan hi...
- [...] .
- Oikiya zan plaza, plaza bea, taberna, Txortena taberna horren aurrekaldian huan zea, frontoia, frontoia irekiya huan. Ta hua itxitzeko ta, ta zean ta zitxion, baiña ez zitxion, gaiñea, itsusi geldittu [...] zean, Txortena daon zea hori, itxia, bista dana kentzen zitxion. Ta ez zekit uain dala zenbat urte iña izango zan berriya. Ta ordun in ziyen zaharra bota. Hamaika pelota iña giñun! Goizian mezeta ta jun, ta jata geo pelotan.
- Eun guztin.
- Eun guztiyan ez. Goizian erten ta geo mezetatik erten ta... Txortena, zea... Behin pixkat heldu giñanian, ta han txakoliñ pixkat ta ean ta zeara geo, pelota. Beatzi t'erdia o goizian, goizo izaten huan meza. Neguan zortzietan ta udaan zazpi t'erdittan o ez dakit ze izaten zan, zazpiretan o, zazpi t'erditan o. Ta orduan jaiero jun behar izaten huan mezeta. Ta aurrena zea jun, e, geo handik ertendakuan pelotan. Ta geo izaten huan earra! Eskuak eta dana zea zitxian, tontotzen zitxian, ta geo jun hai zea, belarrak atea zeara, han, e, behiai belarra ekartzeko zeara...
- Eskuak haundi-haundi inda.
- Eskuak haundi-haundi inda. Hortxe ibiltzen giñan. Baiña...
- Orduan takuak eta oain bezalakoik ez zan.
- Takuak? Takuak? Nik ez... Lehenguan batek esaten zian Getaian, han nitxion beira, ta gaztiak ai hittun, kadetiak o, zean-ta ta. Zeak esaten zitxian, batek, "A! Oaingo gazte habek zeak eskuan, takuak eta jarrita ta, gu ibiltzen giñun bate gabe! Majiña bat aldiz bate gabe ibiltzen giñuan ba gu!".
- Bate gabe. Eta pelotak eta [...] eta...
- Takuak eta pelotak eta... Harriyak bezelakuak igual!
- Halamouzkuak.
- Halamouzkuak! [...] ordun. Zeoze bazan borobilla, harriya ez ezikan, zeatzeko moukua.
- Bote txiki bat egiten bazun...
- Bai, bai, bai, bai. Zeoze itten bazuan han onduan, ertentzen bazun, han ibiltzen giñan. Ta bai, bai, han zebillen harrek esaten... Oaingo zea habek, berriz, takuakin ta gaztetatikan prepauta zatoztik zearako, hortako, ohittuta, ohittu're in beharko [...]. Gu jokatzeko gendun zea jarri, ene!,

esparatrapu zahar bat. Ta zea, harrek zea ingo zun, esparatrapu zea bat jarrita! Beste haiek, bestia azpiko zea haiek! Ez...

- [...] zan hamen, e, zuen gazte denboran, gaztetan eo?

- Pelota, pelota. [...] fubolian, baloirik eta're ez huan hamen. Baloia? Zeiñek zun baloia? Diruak behar zian! Ta pelotak nunonundik juntatzen bazan, pelota zekan batek juntatzen bazan, baten batek ekarritakua o baldin bazun baten batek, mekaue la letxe! Hua izaten huan zebua, harrekin pelotan.

- [...].

- Geo, gu baiño haundixiauak, urte bete ta gehiokuak ta pelotan haiek bastante ondo ibiltzen zianak hittun. Ta haiek, frontoia haiek okupatzen ziyen. Ta gu, zimitayoa. Eliza azpira.

- Eliz-atarira.

- Eliz-ataira gu. Han, eliz-ataian in behar izaten giñun zean, pelotan. Bestiak okupatzen ziyen ta haiek, hi, haiek haundiyaguak ziala ta, [...], ordun'e izaten huan ba, bat baiño bestia zeauagua ta. Gu zeara, hemen, zimitayoa.

11. Korrika-apustuak eta ahari jokoak

- **Erref:** ZUM-009/014
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:32:35. **Bukatu:** 00:35:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:

Apusturako zaletasuna izan da Oikian. Korrika-apustuak ere izaten ziren. Bere lehengusuak bat jokatu zuen eta galdu. Harri-jasotzailerik ez da izan herrian. Ahari-jokoak, orde, bai. Bere lehengusu batek badauzka oraindik jokorako ahariak eta garai batean oso ahari ona izan zuen. Aizarnazabaldik etorri zen ahari-jokoen zaletasuna.

Transkripzioa

- Eta bestela holan, e, apostu kontuak eta...

- Probak.

- Harri-jasotzen ta...

- Proban hamen.

- Aizkoran eta proban, ta?

- Proban zeakin, e, hamen iriyakin-ta ta, Goiburu ta...

- Afiziyua?

- Apiziyua zeana, iriyakin-ta ta. Bai, jokuak eta lehen... Saltaka apustua're akordatzen nauk! Bat jokau zian nere lehengusu batek. Oaiñ praille o dek, hor kanpuan dek. Ta zean, e, hor Otso Gaiñetikan Zuhaitzene, kruzea. Ta bentaja eman zitxion bestiak, bestia zarra huan, morroi o hemen zeona, Aizarnazabalkua o izatez, o. Ta, bentaja haundiya eman zitxion. Ta zaharrak irabazi zian, azkenian. Juxtun, e! , baiñan zaharrak irabazi zian. Ta beste hola, zahar batzuk o, zeozer akordatzen nauk ni, hemen, hor, pixkat aurretikan, han, kruzea o, larehun bat metruan, o, jokau zuela, o. Zeozer bai. Baiño bestela...

- [...].

- Bestela, zeak ez. Harri-jasotzen-ta ta're hemen ez dek izan...

- Ez da izan...

- Ez nauk akordatzen ni... Harri-jasotzailleik ez dakit Oikiyan izan...

- Ta ahari-jokuak eta?
 - Ahari-jokuak bai.
 - Ahari-jokuak bai.
 - Ahari-jokua... Jesuskua ziok hor. Neure lehengusua, Jesuskua. Oaiñ´e bazeuzkak ahariyak.
 - Bai, e?
 - Ahari-jokua´re... Horrek euki ziyen ahari bat munduan baldin bazan!
 - Haxe!
 - Mundun baldin bazan! Kontraiyoikan gabe eon huan hua, ahari hua! Euki ziyen ahariya, ahari beltz bat... mekaueen la letxe!
 - Beltza?
 - Bai, mutur beltzakin.
 - Mutur beltza.
 - Mutur beltza, mutur beltzakiñ huan. Berez zuriya zin hillia ta bai. [...] euki ziyen harrek ahariya ona. Ta uaiñ´e bazeuzkak ahariyak, jokurako ahariyak bazezkak uaiñ´e.
 - Eta hemen inguruan, e...
 - [...]...
 - [...] ta asko izaten zan?
 - E?
 - Afiziyua ta zeon?
 - Ahari-jokua, bai, hor nere lagunak hittun. Lehen-lehenok´re ba omen hittun ahariyak eta hola, zeozter zeatzen zittuenak, ibiltzen zittuenak. Baiño haek geo hor Aizarnazabal alde hortan-ta ta, hor gehio izan huan zea, ahari-apustu, apustu, zea gehio izan huan hor.
 - Zaletasun gehio?
 - Bai! Ta handikan etorritako zeak hittun ahariya, ahari-jokuak eta... Handikan hasitakuak, zea, lagun hoiek... Nere lagun hoiek´e zeautakuak.

12. Aizarnazabalgoen kontrako pilota-partiduak

- **Erref:** ZUM-009/015
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:35:10. **Bukatu:** 00:37:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

<p>Pilota partiduak jokatzen zituzten Aizarnazabalgoen kontra. Behin Aizarnazabalgo batek bi oikiarren kontra jokatu zuen. Hango frontoia luzeagoa zen eta pilota bizien laguntzez erraz irabazi zuen betakoak. Hurrengo urteko jaietan berriz itzuli ziren eta berriz jokatu zuten elkarren kontra, baina erreglamentuzko pilotekin eta bi partidu jokatuz: bata Aizarnazabalen eta bestea Zumaian. Eta orduan oikiarrek irabazi zuten. Beti egon izan da pikea oikiarren eta Aizarnazabalgoen artean.</p>

Transkripzioa

- Ta geo bestia, zea, aizarnazabaldarrakin-ta ta izaten giñun zea... kaguen la letxe!... Pelota partidua! Akordatzen nauk, San Migeletan, [...] batian, jo giñun Aizarnazabala ta hangiak erronka jotzen: batek biei joko ziyela, Aizarnazabalko batek bi oikiarri. Ta neure edadekuak hittun zeak, oikiarrak. Jokatutzen dik, ta hoeitabitik irabazi. Pelotan, bai, ba. Aizarnazabalen [...],

Aizarnazabalen frontoia luzia dek, oaiñ'e hala zioz frontoi zaharra. Berriya're bai, [...] izan zan lehen ta. Ta [aide] irabazi zitxion zeak, Aizarnazabalko horrek. Bai, ba. Pelotak ekarri bizi-biziya ta, sakia atea, jata... Haundiya, bestiak txikiguak hittuan mutillak'e. Ta jota saretikan atzeaka ezin zeau. Ta, handikan hurrengo urtian jun dittuk berriz'e, [...] ta...

- Jaietan, o?

- Bai, ba. Pestetan, San Migeletan. Ein diu berriz apustua, haiekin jokatzeko, beai jokatzeko. Baiño pelota aukera guk, pelota reglamentokua izatekotan. Ta, bat Zumaiko frontoian ta bestia Aizarnazabalko frontoian jokatzekotan. Ta biyak irabazi, guk, oikiarrak.

- Oikiarrak.

- Oikiarrak biyak irabazi. Zumaian... Zumaian ez zekit zenbat in ziun, dozena bat tanto. Ta geo, Aizarnazabala jun, ta Aizarnazabalen bertan errexo irabazi zitxiun, bai, irabazi giñuan ordun. Ta geo, akabo. Geo ya... Geo, uaingo gazte habek, hamen eon dan nere illoba ta, habek eta, hobeto konpondu izan dittuk, aizarnazabaldarrakin beti gaixki konpontzen giñun gu.

- Zuek bai? Pikia zeon?

- Bai, beti pikia huan.

- Bai, e?

- Ta lehengo zaharrak'e hala [eman] ziyen, e!

- Lehen gehio!

- Lehen gehio uaindikan! Lehenguak gehio uaindikan-ta ta. Ta han, zeak, e, habek, zea, kultura gehio guk baiño o, gehixio ikasitakuak o, izango hittuk.

- Oainguak.

- Oainguak itxuraz, itxuraz...

- Gehio ibilitakuak, ez?

- Gehio ibilitakuak eta eskolan-ta ta, baiña gu...

13. Zumaiera baino joera handiagoa Zarautzera; inguruko erromeriak

- **Erref:** ZUM-009/016
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:37:55. **Bukatu:** 00:40:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna

Laburpena:

Oikiarrek eta Aizarnazabalgoek beti izan dute pikea. Zumaierrekin harreman gutxi izaten zuten gutxi joaten ziren Zumaiera eta. Zarautzera beti joera gehiago izan dute. Irteten hasi zirenean ere Zarautzera joaten ziren. Inguruko erromerietara ere joaten ziren eta San Pedrotan Zumaiera gonbidatu. Meagara joaten ziren erromeriara eta hangoa bukatu zenean Urtiaberrira.

14. Garbitzera erredera joaten ziren

- **Erref:** ZUM-009/018
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:42:35. **Bukatu:** 00:45:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekek eta uretako jolasak

Laburpena:

Gaztetan etxean dutxarik ez eta erreka joaten ziren bainatzera. Erreka garbi-garbia egoten zen lehen, Aizarnazabalen papelera jari artean. Hondartzara joaterik burutik pasa ere ez zitzaien egiten. Erreka nolakoa zen. Herriko guztiak joaten ziren bertara. Bainatzeko gune egokia ere bazegoen: "Juliñeneko erribera barrena". Igerian nola ikasten zuten.

15. Bahearekin anguletan errekan

- **Erref:** ZUM-009/020
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:46:25. **Bukatu:** 00:48:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

Berak ez du izan angulatarako zaletasunik, baina Oikian jende asko ibiltzen zen. Garai batean gauez farolez beteta ikusten zen erreka. Ur-ertzetik harrapatzen ziren eta baita erditik ere, txanaletan, bahe handiekin. Azarotik martxo ingurura izaten da angula garaia. Gero belarriak ateratzen zaizkio eta angila egiten hasten da. Ilargi betea eta ilargi berria izaten dira egokiak eta marea goraka datorrela.

16. Lasunak ilaran errekan gora

- **Erref:** ZUM-009/022
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:51:05. **Bukatu:** 00:52:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Natura » Fauna

Laburpena:

Lasuna asko egoten zen eta gaur egun ere badago. Udazkenean ilaretan etortzen ziren asko errekan gora. Barboa ere asko zen lehen, baina papelera jarri zenetik galdu egin ziren. Amorra askorik ez da egon Oikiako errekan. Inguruko erreka txiki batean baziren amuarrainak, baina orain denak galduta daude.

17. Hegaztiak gutxitu dira inguruetan: istingorrak, hegaberak, kulixkak...

- **Erref:** ZUM-009/023
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:52:45. **Bukatu:** 00:55:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

- [Natura » Fauna](#)

Laburpena:

Euren ezagun batek ur-oiloak harrapatzen zituen. Txakur ona zuen, bera ere ona eta asko botatzen zituen. Ehiza asko zegoen lehen (zozoak, istingorrak...), baina asko galdu da. Ahate basatiak ere ugari izaten ziren. Neguan elurra eta izotza egiten zuenean ehiza ugari izaten zen. Gari-ondoetan zizareak ibiltzen ziren eta hara hurbiltzen ziren hegaberak. Lehen ilunpetan hegazti ugari hurbiltzen ziren, baina gaur egun argiekin denak uxatu dira. Kulixkak ere izaten ziren.

18. Oikian "luaki" beharrik ez, kainaberek eusten zioten urari eta

- **Erref:** ZUM-009/024
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:55:35. **Bukatu:** 00:56:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Zumaian erriberako baratzei "luakiyak" deitzen zaie, baina Oikian "souak" esaten zieten, izan ere, Oikia inguruan ez daude halako "isla" edo "luakiak". "Luakiak" urari eusteko horma antzekoak izaten ziren eta Oikian kainaberek eusten zieten urari. Beraz, ez zegoen horren beharrik.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-07-19

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com